

**ISEI-IVEI**

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU  
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN  
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

## **Rc4. Irakasle modura lanean ari diren biztanleen proportzioa**

### **Hezkuntza maila desberdinetan irakasle modura lanean ari diren biztanle aktiboen portzentajea (CINE 0,1, 2 y 3) (\*).**

(\*). Irakasletzat hartzen dira EAeko hezkuntza zentroetan, araubide orokorreko hezkuntza mailetan (haur hezkuntza, lehen hezkuntza, DBH, Ikasketa ertainak eta goi mailakoak) zein araubide berezikoetan (Musika, hizkuntzak, arte aplikatuak eta arte ofizioak) irakasten ari diren pertsonak. Ez dira sartzen irakaskuntzari erantsitako jardueren zentroetan (COP, IRALE, Ikuskaritza, eta abar) ari direnak.


EBko irakasleria azkar zahartzen da. Batez beste, Europako Batasunean, lehen hezkuntzako irakasleen %27 eta bigarreneko %34 50 urtetik gorakoak dira, eta horrek esan nahi du 2015 amaitu baino lehen lehen lehen eta bigarren hezkuntzan milioi bat irakasle baino gehiago kontratatu beharko direla. Egoera honek berriztapena eskatzen du, eta kasu askotan, irakasleen plantillak gehitzea ere, baina herrialde askotan ez dira ugariak leudekeen hautagaiak.

Irakasle modura lanean ari diren biztanle aktiboen proportzioaren datuak herrialde desberdinetako hezkuntza politikek pertsona baliabideetan egiten duten inbertsioa adierazten digu. Nolanahi ere, datu hau beste batzuekin batera, hala nola, dentsitate demografikoarekin, derrigorrezko eskolatzearen iraupenarekin, eta guztirako biztanleriaren aldean biztanleria aktiboaren proportzioarekin batera aztertu beharko litzateke.

EBko 15 herrialdeen batez bestekoa biztanleria aktiboaren guztirakoaren %2,8 da, eta herrialderik gehienak zenbaki horretatik oso gertu daude. Salbuespena Danimarka da, %4,4ko portzentajea baitauka.

Euskal Autonomia Erkidegoan 1999-2000 ikasturtean proportzio hori %3koa zen, unibertsitate aurreko hezkuntza mailetan (CINE 1, 2 eta 3).

Irakasleria nola osatuta dagoen aztertzeko orduan kontuan hartu behar den beste datu bat sexuen eta hezkuntza etapen arabera nola banatzen diren da. Euskadin emakumeak gehiago dira hezkuntza etapa guztietan, unibertsitatean (%35 inguru), eta araubide bereziko irakaskuntzetako arte eta ofizioen adarretan (%43 inguru) ezik.



**ISEI-IVEI**

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU  
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN  
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

### Rc4.1 taula


Irakasle modura lanean ari diren biztanle aktiboak. (CINE 0,1, 2 y 3). EAE. 1994-2003 urteak.

Ikasturtea	Ehunekoak		
	Guztira	Gizonak	Emakumeak
1994-95	4,5	38,0	62,0
1995-96	4,5	36,7	63,3
1996-97	4,3	37,1	62,9
1997-98	4,2	36,8	63,2
1998-99	4,3	36,6	63,4
1999-00	4,1	36,6	63,4
2000-01	4,0	36,3	63,7
2001-02	4,0	36,3	63,7
2002-03	4,0	36,0	64,0


### Rc4.1 grafikoa

Irakasle modura lanean ari diren biztanle aktiboak. (CINE 0,1, 2 y 3). EAE. 1994-2003 urteak.

Irakasle ari diren biztanle aktibo okupatuak. Ehunekoak



Iturria: EUSTAT




**ISEI-IVEI**

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU  
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN  
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

**Rc4.2 taula**

Emakumeen portzentajea araubide orokorreko irakaskuntzetan. 1999-2003 urteak.


**Emakumeen portzentajea araubide orokorreko irakaskuntzetan.**



**Rc4.2 grafikoa**


Emakumeen portzentajea araubide bereziko irakaskuntzetan. 1999-2003 urteak.

**Emakumeen portzentajea araubide bereziko irakaskuntzetan.**



Iturria: EUSTAT





**ISEI-IVEI**

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU  
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN  
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

**Rc4.3 taula**

CINE 1, 2 eta 3. mailetan irakasle ari direnen portzentajea, biztanleria aktibo osoaren aldean (\*). EB. 1999-2000 urtea.

Irakasle ari diren guztirako biztanle aktiboaren portzentajea EB 1999-2000 (CINE 3)	
1999-2000	
Alemania	2,1
Finlandia	2,3
Erresuma B.	2,4
Austria	2,6
EU 15	2,8
Frantzia	2,7
Irlanda	2,7
Luxenburgo	2,7
Espainia	2,7
Holanda	2,8
Grezia	2,8
Danimarka	2,9
Italia	2,9
Suedia	3
EAE	3
Portugal	3
Belgika	4,4

**Rc4.3 grafikoa**

CINE 1, 2 eta 3. mailetan irakasle ari direnen portzentajea, biztanleria aktibo osoaren aldean. EB. 1999-2000 urtea.

(\*). Okupaziodun eta okupaziorik gabeko biztanleria.

Iturria: Eustat Euskadiko datuetarako, gainerakoetarako, Europako Hezkuntzako zenbaki kakoak 2002.

**Irakasle ari diren guztirako biztanle aktiboaren portzentajea EB 1999-2000 (CINE 3)**

